

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

Zor gaiztoko burbuila lehertu eta bi abuztu geroago

Agorrileko albiste nagusietako bat, ertzainek euskal karrikeri egin dieten “aurpegi garbiketa” historikoarekin batera, izan da munduko nazio batzuetako ekonomiak hasi omen direla atzeralditik ateratzen. Ditxosozko “ernamuin berriak” loretuko ote dira? Ann Pettifor ezezkoan dago.



LUR HARTZEKO EGUNAK DIRENEZ opor osteko lehenbizikoak, munduko krisi ekonomikoari irailako azterketa egiteko aitzakia ematen dute. Zertan gaude, pasatu da okerrera, geratu da atzerakada, ekonomia paralizatuari kimu berriak sortu al zaizkio dagoeneko, kontsumo zoroko urteen itzulera hurbilago ote da?

Ez da oso elegantea nork bere idatzi baten aipamena egitea. Akats horretan erori da, nahita, NET HURBIL hau titulutik hasita, justu duela bi urte ipinitakoari (“Zor gaiztoko burbuila lehertu zen abuztuan”) egiten baitio oihartzun. Hona orduko azken lerroetako batzuk: “Aipatu duguna bezain analisi katastrofikoak Ann Pettifor eta beste lau katuk sinatu izan dituzte abuztu honetan. Gainerakoek uste dute aste gutxitan baretuko direla gauzak. Baina denek aitortzen dute astindu gehiago izango dela laster”.

Kontua da Ann Pettifor ekonomialariak berak *Debtomation-day, plus two* (*Debtomation* –zorria lehertu zeneko– eguna gehi bi) artikulua plazaratu duela abuztuan *Open Democracy* sareko hedabide aurrerazalean. *Debtomation* kontzeptua Pettifor berak sortu zuen –2003tik ari zen kredituen burbuila lehertzear zela– eta justu duela bi urte *Open*

*Democracy*n publikatu zuen *Debtomation: how globalisation dies*. Haren tesiaren muina: globalizazioa finantz erakundeek gidatu dutela zorpetze erraldoian oinarrituta, eta 2007ko abuztuan zapartatu zela eskema hori.

2007an Pettiforrek egindako aurreikuspenak bete egin dira, eta horregatik merezi du bai haren orduko analisisietara bihurtzea eta bai etorkizunaz dioena irakurtzea, arriskatu eta asmatu zuten ekonomialari urrietakoa izan baitzen.

Zorpetze erraldoiaren gorpilak eztanda egin ondoren, bi urteotan sekulako diru galerak egin dituzte bankuek, askok hondoa jo dute –tartean handienetako batzuek–, kredituak izoztu egin dira, estatuek ortodoxiari errespetua galduta zuzenean sartu behar izan dute eskua finantz merkatuan, munduko ekonomia erdi-paralizatu da, industriaren salmentak agortu, milioika herritar behargin langabezian amildu, familia andanak etxebizitza galdu...

Pettiforrek kalkulatu du urteotan 25 bilioi dolar galdu dituela munduak krisiarekin, AEBen urtebeteko Barne Produktu Gordinaren bi halarako zuloa. Eta honek paralizatu egin omen du globalizazioa. “Araurik gabeko kredituak ziren globalizazioaren muina, ez komertzioa, nahiz

eta espekulazioaren eromena mundu mailako salerosketetan islatu den. Analista eta ekintzaile askok ez zuen ondo ulertu finantzak munduko ekonomian jokatzeko zuten papera (...) Globalizazioaren aurkako mugimendua bera komertzioaren egoskortu zen, eta finantzen garrantzia gutxietsi zuen”.

Hurbileko etorkizunari begira gauzak nola dauden analizatzeko, bi atali erreparatu die Pettiforrek. Batek, mundu mailako komertzioari, hori izan baita globalizazioaren ikurra, nazioetako ekonomiak planeta-koan integratu behar omen zituen. Bestetik, Txinako ekonomiaren aldarte. Asko abonatu da Txinaren sasoia, bera izango omen dela mundua krisitik aterako duen motoreetako, ez bada nagusia. Aldiz, bi atalak aztertuta uste du Ann Pettiforrek globalizazioaren egin duela.

Itsas garraioaren motela

Mundu mailako komertzioaren ez da berpizkundea iragarriko duen ernamuinik ageri. Munduko Merkataritza Erakundeak aurreikusten du 2009an salerosketak %10 murriztuko izan direla iaz baino. Itsasoko garraioaren eta ontzigintzan nabarmen zuten da gehien.

Munduko portuetan 500 kontainer-ontzi omen daude lanik gabe amarratuta lehorrari, milaka mari-



"Lifefloatingby" sinatzen duen batek ipini du argazki hau Interneten: kontainer garraioan dabilen itsasontziari zama mugitu egin zaio. 1929tik gaurdaino munduak ezagutu duen ekonomi krisirik sakonena dela aitortu ondoren, ekonomialariak eztabaidan ari dira haren sakonaz: Ann Pettifor eta beste ekonomialari gutxi batzuk uste dute globalizazioaren bidea eten egin dela 2009ko abuztuko krisiaren ondoren. Beste eztabaida bat krisiaren iraupenari eta bilakabidearen ereduari dagokio. "V" ereduko krisi sakon baina laburra dagoeneko ezinezkoa denez, "U" formako eboluzioa eramango duela uste dute askok, eta laster hasi beharko luketela gauzek hobetzen. Horretan sinesten dute azkenaldian "ernamuinak" aipatzen dituztenek. Ezkorrago batzuk beldur dira "L" luze depresiboaren moduan luzatuko dela. Baina krisiaz aldezturik alarma piztu zuen Nouriel Roubinik uste du "W" formako bilakabidea eduki dezakeela: atsedenaldira laburra hilabeteotan eta berriro zulora.

nel besoak tolestatuta. Sektoreko informazio iturriak aipatu ditu Ann Pettiforrek.

Seeking Alpha buletinean Steven Hansen itsas garraioan adituak kontatu du berrikitan Sea Asia 2009 biltzarrean pakeboteen jabeek, ontzizintzako nagusiek, garraio korporazio erraldioetakoek eta logistikako ugazabek ia aho batez iritzi omen diotena: krisiak luze joko duela oraindik, zehazki bost urte.

Une honetan itsasontzi gehiegi dago. Hori gutxi balitz, ontziolek sekula baino bapote gehiago dauzkate bukatzeaz, berehala uretaratze-ko prest. Abendu honetarako munduan kontainer garraioan ari diren ontzi guztien %20 egon omen daiteke lanik gabe geldirik.

The Spiegel astekari liberal alemanean munduko itsas garraioaren panorama beltza marraztu dute *Global Crisis Hits Shipping Industry Hard* (Mundu mailako krisiak gogor astindu du itsas garraiogintza) erreportaje luzean. "Itsasoko garraioak beste ezein atalek baino etekin handiagoa atera dio globalizazioari. Baina munduko ekonomiaren krisiak beste guztiak baino gehiago zauritu dezake". Erradiografiak ez du kasik argiunerik erakusten: bapoteak erdi hutsik nabigatzen, pakebote berriak kaitik atera gabe, pleit edo prezioak erdira makurtuta, bankuak kredituak ukatzen...

Itsasoko garraioak kapital asko behar baitu. Zorren burbuila garaian bankuak amorratzen zeuden

dirua lagatzeko, baina anpulua leher-tu denean kredituak agortu egin dira itsasgintzarako ere. Hilabeteotan ontzizintzako aktibitatea gobernuak luzatutako kreditu eta dirulaguntzen bizkar dabil. Noiz arte? Ez jakin. Edonola ere, *Seeking Alpha* aipatzen zen Sea Asia 2009 biltzarrean industriako nagusiek onartu omen zutela mundua ez dela berriro itzuliko 2007aren aurreko garaietako kontsumismo zorora.

Bitartean zer lortuko du Txina erraldoiak? Txinaren hazkunde tase-tan dituzte itxaropen handiak aditu askok. Bestela uste du Ann Pettiforrek, Munduko Diru Funtsearen analisietan bezala beste batzuetan oinarrituta. Txinaren hazkundera handia izanik ere, mundua krisitik ateratzeko derrigorrezkoa litzateke Europar Batasuna eta AEBk ateratzea. Gainera, Txinaren azken hilabeteetako hazkundera Estatuaren diru injekzioei esker gertatu omen da neurri handi batean, eta asko uste du, beldurrez, lehertuko den hurrengo burbuila han puztu dela.


Ann Pettiforren epaia: "2007ko abuztuaren 9an aldatu egin zen mundua. Guztiok –gizabanako, familia, enpresa, banku, gobernu, nazioarteko erakunde...– noiztik noiz ditugu ondorioak. *Debtation-day* egunaren errainupean gaude: egun hartan mamitu ziren aurreko belaunaldiaren ekonomiazko huts egiteak eta krisi aro berri batean murgildu ginen". ■

www.argia.com/nethurbil.php helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624 · zinkunegi@euskalnet.net



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia

